

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2020-10-27(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

6-BERMEOKO UDALEKO BERDINTASUN PLANA EXEKUTATU ETA EKINTZAK GARATZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA.

Xedea

Bermeoko Udaleko Berdintasun Plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzu kontratuaren espedientea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Berdintasun plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzua kontratatze beharra dago. Hori dela eta, 2019ko urriaren 29ko erabaki bidez, kontratazio espedienteari hasiera eman zitzaion.

Bigarrena: Espedientea izapidetu ondoren, 2020ko martxoaren 25eko 826 zk. Alkatetza Dekretu bidez, Berdintasun Plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzuaren kontratazioan, Gisma Asesoramiento, S.L. enpresak aurkeztutako eskaintza baztertzea eta kontratazioa hutsik deklaratzeko erabaki zen.

Hirugarrena: Horren ondorioz, aipatutako beharizana kontratatze, publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetzea erabaki zen. Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko ekainaren 2an, espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea erabaki zuen.

Laugarrena: 2020ko abuztuaren 17ko 1928 zk. Alkatetza Dekretu bidez prozedura hutsik deklaratzeko erabaki zen, proposamena aurkeztu zuen enpresa bakarrak, emandako epe barruan, ez baitzituen aurkitutako akatsak zuzendu.

Bosgarrena: Beharizana oraindik dagoenez, Idazkaritzako AOTk justifikazio memoria egin du, 2020ko irailaren 17an, non kontratuaren beharra eta egokitasuna jasotzen dituen.

Seigarrena: 2020ko irailaren 23an, Kontabilitateko Arduradunak kontsignazio nahikoa adierazten duen RC 2020/200 dokumentua igorri du.

Argudioak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40005290A00M7J5F9P6G3I2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 29/10/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 29/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/10/2020
11:55:02

EXPEDIENTE ::

2020KON_NE_G0007

Fecha: 15/09/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:

Erregistro nagusia



Lehenengoa: Kontratu administratibo baten aurrean gaude, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 25. artikulua araberaz.

Bigarrena: Kontratu hau zerbitzu gisa kalifikatu behar da, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera: *“zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obra edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.”*

Halaber, ez da arauketa harmonizatuaren mende dagoen kontratua, haren balio estimatua 214.000,00 eurotik beherakoa baita, SPKLren 22.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena: Espediente honetan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzea proposatzen da, SPKLren 167. eta 170. artikuluei jarraiki. Prozedura honen erabilera SPKLren 168.a.1) artikuluan aurreikusitako kasuan justifikatzen da:

“Los órganos de contratación podrán adjudicar contratos utilizando el procedimiento negociado sin la previa publicación de un anuncio de licitación únicamente en los siguientes casos:

a) En los contratos de obras, suministros, servicios, concesión de obras y concesión de servicios, en los casos en que:

1.º No se haya presentado ninguna oferta; ninguna oferta adecuada; ninguna solicitud de participación; o ninguna solicitud de participación adecuada en respuesta a un procedimiento abierto o a un procedimiento restringido, siempre que las condiciones iniciales del contrato no se modifiquen sustancialmente, sin que en ningún caso se pueda incrementar el presupuesto base de licitación ni modificar el sistema de retribución, y que se envíe un informe a la Comisión Europea cuando esta así lo solicite.”

Laugarrena: Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-organo gisa duen eskumena alkatea da, kontratuaren iraupena eta balio zenbatetsia indarrean dagoen aurrekontuaren baliabide arrunten % 10 baino handiagoa ez delako. Hala ere, 2019ko ekainaren 21eko 1479 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboa egin ostean, aho batez, honakoa ERABAGIDAU:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40005290A00M7J5F9P6G3I2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 29/10/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 29/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/10/2020
11:55:02

EXPEDIENTE ::
2020KON_NE_G0007
Data: 15/09/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



LEHENENGOA: Kontratazioaren beharrizana eta espedientearen hasiera berrestea.

BIGARRENA: Bermeoko Udalaren Berdintasun Plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzu kontratuaren espedientea, Administrazio Baldintza Agiriak eta eranskinak, eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.

Gehienez ere 29.996,00 euroko aurrekontua izango du (BEZa barne), URTE BATERAKO (1), eta urtez urte luzatzeko aukerarekin, gehienez ere 4 urteko epearekin. Kontratuaren balio estimatua 99.160,00 eurokoa izango da (kontratuaren urtebeteko aurrekontua, urtebeteko 3 luzapen eta balizko aldaketak), BEZa kanpo.

HIRUGARRENA: Kontratu honek dakarren gastua baimentzea, 00800.9214-2279965 kontu-sailaren kontura, eta dagozkion zenbatekoen kreditua konprometitzea, gauzatzeak eragiten dien ekitaldien kargura.

LAUGARRENA: Kontratu hau esleitzeko prozedura publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez hastea, eta lizitazioa arautzen duten administrazio-klausula partikularren orrietan eskatzen den kaudimena egiazta dezaketen hautagaiak gonbidatzeko agindua ematea. Lizitazioa horiek, gehienez ere, 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dute proposamena.

BOSGARRENA: Lizitazioaren iragarkia Bermeoko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea.

SEIGARRENA: Erabaki hau helaraztea Idazkaritza Sailari, jakinaren gainean egon dadin.

ZAZPIGARRENA: Hurrengo 0 soko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua araberan), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

O rri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40005290A00M7J5F9P6G3I2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 29/10/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 29/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/10/2020
11:55:02

EXPEDIENTE ::

2020KON_NE_G0007

Fecha: 15/09/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

